

ESKORIATZAKO UDALAREN ETA ARIZMENDI IKASTOLAREN ARTEKO DIRU LAGUNTZA HITZARMENA

BILDUTAKOAK

BATETIK, Edorta Zubizarreta Alegria, Eskoriatzako Udaleko Alkatea

BESTETIK, Arizmendi ikastolako Administrari Nagusia den Laurane Zubia

Alde biek kontratu hau egiteko eskumena eta gaitasuna onartzen diote elkarri eta, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

1.- Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorreko 22.artikuluari, besteak beste, jasotzen da dirulaguntza zuzentzat joko direla toki erakundearen aurrekontuetan nominatiboki aurrekutsia daudenak, eta laguntzak ematerakoan horiek arautzen dituzten arauetan eta hitzarmenetan jasotakoaren arabera eman beharko direla.

Eskoriatzako Udaleko 2025eko aurrekontuetan Arizmendi Ikastolaren mantentze gastuetan laguntzeko 8.000 €ko dirulaguntza nominatiboa aurreikusten da.

2023ko abenduaren 21ean, Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen. Plan horretan ildo estrategikoak jasotzen dira, 6. izanik "hezkuntza sustatzea" izenekoa. Lerro horren C ekintza Arizmendi ikastolaren kooperatibarekin hitzarmena dirulaguntza izenduna da, eta bere helburua da erakunde horri diruz laguntzea Arizmendi ikastolaren mantentze-lanak finantzatzeko.

2.- Eskoriatzako Udalak herriko ikastetxeen lana aintzat hartzen duela eta diruz lagundu nahi dituela erakusten mantentze gastuei aurre egiteko.

3.- Arizmendi Ikastolak Eskoriatzako udalerriko bi gunetan ematen dituela eskolak: Jose Aranan eta Almenen.

4.-Arizmendi Ikastolan 3-18 urte bitarteko 337 ikasle eskoriatzar zeudela matrikulatuta 2024/2025 ikasturtean.

5.- Arizmendi Ikastolaren helburua, izaera kooperatiboa eta euskalduna duen irakaskuntza eskaintzea dela.

Diru laguntzei buruzko Lege orokorreko 22. artikuluan eta horrekin bat datozen arauetan jasotakoari jarraiki, diru laguntza honi buruz alde biek hartutako konpromisoak arautzen dituen lankide hitzarmen hau sinatzen dutela alde biek. Hitzarmenak honako klausula hauek ditu:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Diru laguntzaren helburua da JOSE ARANA eta ALMEN Arizmendi ikastolako guneen mantentze gastuak, Eskoriatzako ikasleei dagozkienak, finantzatzeko laguntzea ARIZMENDI IKASTOLARI.



BIGARRENA.- Dirulaguntza 8.000.€koa da, JOSE ARANA eta ALMEN guneetan matrikulatutako Eskoriatzako ikasleengatik ematen dena, eta inolaz ere ezingo du Eskoriatzako Udaleko aurrekontuetan izendatutako diru-kopurua gainditu.

HIRUGARRENA.- Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 lege orokorraren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 76. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoaren babesean, modulu sistemaren bidez eman eta justifikatzen da diru laguntza hau.

Kontuhartzailtza zerbitzuak emandako datuekin egindako txosten ekonomikoak adierazten du, Eskoriatzako Eskola Publikoan ikasten ari diren ikasle bakoitzagatik zenbat gastatzen duen Udalak, mantentze gastuei aurre egiteko 709,47 € urtean ikasleko, hain zuzen ere.

Horren aurrean, Arizmendi ikastolan Eskoriatzako haur asko ikasten ari direla-eta, mantentze gastuei aurre egiteko dirulaguntza bat ematea arrazoituta dagoela ikusten da.

LAUGARRENA.- Diru laguntza helburu horretarako Estatuko edo Europako Batasuneko beste edozein administrazioetik edo erakunde publiko edo pribatuetatik edo nazioarteko erakundeetatik jasotako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuekin bateragarria izango da, betiere, beste laguntzak edo dirulaguntzak arautzen dituzten araudiek ezarritakoaren kaltetan gabe. Hala ere, emandako dirulaguntzak ezingo du inolaz ere, berak bakarrik edo beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako gastuak gainditu.

BOSGARRENA.- Erakunde onuradunak. Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean izango ditu hitzarmena sinatu baino lehen eta hitzarmenaren indarraldiak dirauen bitartean. Horretarako, hitzarmen hau sinatzearekin, Gipuzkoako Foru Aldundian, Gizarte Segurantzaren edo eskuduntzak dituen beste erakunde edo administrazio publikoren batean dagozkion ziurtagiriak telematikoki lortzeko baimena ematen zaio, berariaz, Eskoriatzako Udalari.

SEIGARRENA.- Erakunde onuradunak, hitzarmen hau sinatu aurretik ondoren zehaztutako dokumentuak aurkeztu ditu.

- Ekitaldiaren balantze ekonomikoa.
- Galera eta irabazien kontua.
- Ikastetxean Eskoriatzako zenbat ikasle dauden matrikulatuta egiaztatzeko agiria.
- Diruz lagundutako gastuak finantzatzeko jasotako beste laguntzei buruzko zinpeko aitorpena.

Dokumentuak aztertu eta Hezkuntza teknikariak Dirulaguntzei buruzko Lege orokorreko erregelamenduko 88.3 artikuluan aurreikusitako txostenean ontzat eman ondoren ordainduko da dirulaguntza.

ZAZPIGARRENA.- INDARRALDIA ETA ARAUDI APLIKAGARRIA

Hitzarmen honek 2025eko abenduaren 31a arteko indarraldia izango du.

Erregimen juridikoari dagokionez, hitzarmen honi Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorra eta Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorraren

erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua aplikatuko zaizkio.

ZORTZIGARRENA- JURISDIKZIOA.

Hitzarmen honen interpretazioari, aplikazioari edo eraginei buruz sor daitezkeen auziak erabakitzeke eskumena Administrazioarekiko auzi-jurisdikzioak izango du.

Aurrean esandakoarekin bat datozela agertzeko, alde biek hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, helburu bakarrarekin, goian adierazitako leku eta egunean.

Arizmendi Ikastolako Administrari Nagusia

Eskoriatzako Alkatea

